

2010ean, Euskal AEko biztanleriaren ia erdia okupatua zegoen


Hamar pertsona aktibotatik bat langabezian

2010eko Biztanle Aktiboen udal estatistikaren arabera, pertsona aktiboak 1.035.574 ziren, 468.423 emakume eta 567.151 gizon. Euskal AEko jarduera-tasa %47,7 zen; emakumeen artean %42,2, gizonen artean %53,5.

Arabak du jarduera tasarik handiena, %49,9; Gipuzkoa eta Bizkaikoak, oso antzekoak: %47,9, %47.

Euskal AEko eskualdeetako tasak Arabako Errioxako %45,9 eta Gorbeia Inguruetako %51,6 artean daude, biak Arabako eskualdeak. Bizkaian muturreko eskualdeak Plentzia-Mungia (%50,4) eta Gernika-Bermeo (%46) dira. Gipuzkoa da homogeneoena: Debagoienan %48,4 eta Debabarrena %46,8.

1. mapa. Jarduera-tasa udalerriko (%). 2010-I-1



Iturria: EUSTAT. Biztanle aktiboen udal estatistika

Tasarik handienak udalerri txikienei -10 biztanletik beherakoek- dituzte: %48,9. Zenbat eta biztanle gehiago, orduan eta tasa txikiagoa: Hamar-berrogei mila biztanle artekoetan, %47,8; berrogei-ehun mila artean, %46,6. Hiriburuetan –hirurak daude 100.000 biztanleen gainetik- jarduera-tasa %47,6 da.

Hiriburuetan dira txikienak gizonen eta emakumeen tasen arteko aldeak : %53 eta %42,6. 40-100 mila artekoetan dira, berriz, handienak: gizonen %52, 9 dira aktiboak eta emakumeen %40,8.

Gasteizek du tasarik handiena: %50,1. Txikiena, Bilbok: %45,8. Donostiak %47,7.

Euskal AEk 251 udalerri ditu. 79tan jarduera-tasa %50 edo gehiago da. Elburgo/Burgelu eta Iruran %60tik gertu dago. Kontrako muturrean, Kripan eta Lanestosa. Hor ez da %40ra iristen.

Hamar pertsona aktibotatik bat langabezian

2010eko hasieran, biztanle aktiboak %9,7 langabezian zeuden; gizonen artean gehiago -%10,3- emakume artean baino -%9,1-.

Langabeziarik handiena, Bizkaiak: %10,3. Gizonen %10,9, emakumeen %9,5. Araban langabezia %9,8 (gizonen %10,4, emakumeen %9,1). Gipuzkoan %8,8 (gizonen %9,1, emakumeen %8,4).

Eskualdeetan oso egoera ezberdinak. Araban daude bai langabezia tasarik txikiena (Gorbeia inguruak, %6,5), bai handiena (Errioxa, %13,3). %10 baino gehiago, langabezia-tasan, Markina-Ondarru, Bidasoa Behea, Bilbo handia eta Arabako Ibarak. Bidasoa Behean izan ezik, Gipuzkoako gainerako eskualdeetako langabezia-tasak Euskal AEko batez bestekoaren azpitik daude.

Udalerrien tamainari begiratuz gero, langabezia-tasarik txikienak geruza txikienetan daude; horrela, hamar mila biztanle baino gutxiagokoetan, %8,7 dugu; tamaina-geruza handiagoetan, %9,3 eta %10,6.

Paraleloki, geruza txikietan ditugu jarduera-tasarik handienak.

Hiriburuetan langabezia tasa biztanleriaren %10,3 da. Bilbon dugu langabezia-tasarik handiena, %11,2; %10 Gasteizen eta %8,9 Donostian.

1. taula. Jarduera-tasak eta langabezia-tasak udalerriaren tamainaren arabera (%). 1-I-2010

	Jarduera-tasa			Langabezia tasa		
	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
≤10.000	48,9	54,7	42,9	8,7	8,8	8,7
10.001-40.000	47,8	53,6	42,2	9,3	9,6	8,9
40.001-100.000	46,6	52,9	40,8	10,6	11,2	9,8
>100.000	47,6	53,0	42,6	10,3	11,2	9,1


Iturria: EUSTAT. Biztanle aktiboak udal estatistika

Gizonen eta emakumeen langabezia-tasen arteko aldea haziz doa udalerriaren tamaina hazi ahala: puntu hamarrena txikienetan eta ia bi puntu hiriburuetan, beti gizonen kalterako.

Euskal AEko 251 udalerrietako 51tan langabezia-tasa biztanleria aktiboaren %10 edo gehiago zen. Tasa bereziki altua zen Arabako udalerrietan: Oion (%20,8), Moreda Araba (%18,0), Erribera Beitia (%14,6), Lapuebla de Labarca (%13,9).

Berriz, Euskal AEko 15 udalerri tan langabezia-tasa %5 baino gutxiago zen; nabarmentzen dira: Samaniego (%2,6), Altxaga (%2,4), Nabaridas (%2,2) eta Gizaburuaga (%1,9).

**1. grafikoa. 16 urte eta gehiagoko biztanleria okupatua, sektore ekonomiko eta eskualdeen arabera (%).
2010-I-1**



Iturria: EUSTAT. Biztanle aktiboen udal estatistika

Gipuzkoan daude industrian okupaziorik handiena duten udalerriak; Araban nekazaritzan eta Bizkaian zerbitzuetan

Dena dela, gure erkidegoko udalerrien arteko alderik handienak jarduera-sektoreen arabera okupazioan daude.

Esaterako, Euskal AEn, zerbitzuetan ari den biztanleria okupatuaren ehunekoa %69,5 da. Zenbait udalerrian, -Bizkaian Getxo, Plentzia, Bilbo, Berango, Barrika, Gorniz, Sukarrieta, Sopela, Loiu; Gipuzkoan Donostia- zerbitzuetan ari dira hamar landunetik zortzi inguru.

Gipuzkoan daude industriaren sektorean okupazio-tasarik altuenak dauzkaten udalerri gehienak. Euskal AE osoan %21,1 da. Eskoriatza, Oñati, Ormaiztegi, Aretxabaleta, Aizarnazabal, Antzuola, Idiazabal, Lazkao, Mendaro, Amezketa, eta Baliarrainen Gipuzkoan; Zaldibar, Ermua eta Etxebarria Bizkaian; Kripan eta Aramaion Araban, pertsona okupatuak %40 baino gehiago dira.

Berriz, nekazaritzan ehuneko handiak dauzkaten udalerri gehien-gehienak Araban daude. Nekazaritzan biztanle okupatuen ehunekorik handiena duten hamar udalerriak denak Arabakoak dira, %20 eta gainetik. Zenbaitetan, Mañuetan, Bilarren, nekazaritzan ari dira ia bi okupatutik bat: %47,1, %40,8.

Eraikuntzan ari da okupatuen %8,5, baina Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbaitetan -Artzentales, Turtzioz, Gaztelu, Amezketan, Muskiz, Abanto Zierbena, Belauntza, Hernialde, Berastegi-ehunekoa aurrenekoaren %14,1 eta azkenekoaren %19,2 artean da.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Amaia San Miguel

Tlf:+34-945-01 64 91 Fax:+34-945-01 75 01